



2. proiektua: SORKUNTZARAKO ELKARLAN-ESPAZIOA (COWORKING)

Egoera: Sorkuntza Lantegia izeneko erakunde batek ikastetxe bat erosi du, eta, bi urte barru, elkarlan-espazio (*coworking*) bihurtuko dute. Horretarako, ideien lehiaketa bat antolatu dute hura eraldatzeko.

Idea-lehiaketarako proiektua aurkezten dutenek gela-eredu bat diseinatu beharko dute, esparru ezberdinetako bi artistarentzako gela-eredu bat, hain zuzen ere.

Imajinatu egoera hori dela. Zalantzak argitzeko, Sorkuntza Lantegi erakundearekin bilera bat eduki duzue proiektua hasi aurretik. Informazio hau jaso duzue:

Proiektuaren ezaugarriak

Kokapena:

Espazioa gure proiektuetako gela (A. Aalto gela) izango dela imajinatuko dugu. (??)

Espazioaren banaketa:

- Esparru ezberdinetako artista bik lan egiteko espazioa: 24-30 m²
- Denda txiki bat: 8,5-11 m²
- Sukalde txiki bat, kafea edo janaria egiteko: 3,5-4,5 m²
- Atsedeen hartzeko gunea: 6-8 m²

Bete behar diren baldintzak:

1. Gelaren egitura:
 - Gelak orain duen eskailera-maila ken daiteke.
 - Horma nagusiak bere horretan mantendu behar dira, baina barruko hormetan aldaketak egin litezke nahi izanez gero; adibidez, arotzeria alda liteke, hutsuneak ireki...
 - Leihoak dauden bezala utzi behar dira.
2. Akaberrak. Espazioak orain dituen akabera guztiak alda daitezke.
3. Altzariak. Dauden altzariak kendu edo bertan utzi daitezke. Altzari aproposak aukeratu beharko dira.
4. Bestelako moldaketak. Egokitu egin beharko da argiztapena, eta modu egokian erabili koloreak.
5. Kontuan hartu beharko da zer harreman daukan gelak korridorearekin eta alboan dauden gelek.
6. Materialak. Zura eta metala izango dira protagonista.



Lana egiteko, bost talde egingo dituzue, eta talde bakoitzak artista pare bat izan beharko du kontuan. Artisten beharrianak ezagutzeko, benetako artistak bilatu, eta elkarrizketatu egin beharko dituzue.

Artistak:

7. lantegia: Zeramikaria - Ilustratzailea
8. lantegia: Moda-diseinatzailea - Eszenografoa
9. lantegia: Argazkilaria - Diseinatzaile grafikoa
10. lantegia: Serigrafista - Koadernatzailea
11. lantegia: Moda-diseinatzailea - Arkitektoa

Proiektua klasean garatuko da, fasez fase, planifikazio bati jarraituz. Eta, horretarako, saio teorikoak eta praktikoak izango ditugu.

1. fasea: AURRETIKO AZTERKETA

Aurkeztu beharrekoa:

- Bezeroarekin izandako elkarrizketatik ateratako informazioa
- Beharrianen zerrenda eta lana egiteko programazioa
- Espazioaren neurketa: eskuz egindako krokisak eta egungo egoeraren planoak

Egindako lana aurkezteko azken eguna eta ordua: **2023ko urriaren 17a**; 11:30

2. fasea: AURRETIKO LANA

Aurkeztu beharrekoa:

- Bilatutako informazioaren gaineko hausnarketa

Egindako lana aurkezteko azken eguna eta ordua: **2022ko urriaren 18a**; 11:30

3. fasea: PROIEKTUA SORTZEA ETA GARATZEA

Aurkeztu beharrekoa:

- Hasierako ideiak
- Akaberen, materialen... aukeraketa
- Hasierako planoak

Egindako lana aurkezteko azken eguna eta ordua: **2023ko urriaren 30ean**; 12:15

4. fasea: PROIEKTUA GAUZATZEA

Aurkeztu beharrekoa:

- Memoria
- Plano teknikoak
- *Moodboarda*
- Aurkezpen digitala



Amaierako lana aurkezteko epea eta ordua: 2023ko azaroaren 7a; 11:30

**Proiektua landu ahala, fase bakoitzean zer egin behar den zehaztuko da. Ez ahaztu Proiektuen Koadernoak beteta eta eguneratuta izan behar duzuela.*

Proiektua karpeta batean eman beharko duzue.